



# RASFF TXOSTENA

## ANIMALIEN ELIKADURA

### ALERTAK eta JAKINARAZPENAK



Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria

Jakinarazitako arriskuen tipologia

Tartean dauden lehengaiak eta pentsuak


Eranskina. Laburpen-taula

2020ko HIRUGARREN LAUHILEKOA >

### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2020ko hirugarren lauhilekoan, animalien elikagaiekin lotutako **103 jakinarazpen** egin dira; **horietatik 19 alertak izan dira, 63 informazio-jakin-arazpenak eta 21 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol motari dagokionez, **24 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte; **32**, berriz, pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **kontrol ofizialek**; **46** industriaren beraren **autokontrolatan detektatu dira, eta 1 kontsumitzaileen kexa izan da.**



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan, **103 jakinarazpenetatik 33tan (% 32)**, kaltetutako produktuaren jatorria hirugarren herrialde bat izan da. Hauek dira jakinarazpen gehienetan tartean izan diren hirugarren herrialdeak: **Ukraina (7) eta Turkia (5).**

**Ukrainari** dagozkion jakinarazpen gehienek lotura dute **erremolatxa idorraren pulpan aurkituko onddoekin**. **Txinaren** kasuan, jakinarazpen gehienak **mikrobiologiagatik (Salmonella eta enterobakterioak) eta baimendu gabeko substantziengatik egin dira.**


RASFFri **jakinarazpen gehien egin dizkieten herrialdeak Belgika eta Alemania izan dira (18 eta 15 jakinarazpen, hurrenez hurren).**

### JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Aldi horretan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologiarekin** lotuak izan dira (**% 49,5**), **eta horien atzetik daude gehigarrien kopuru handiarekin (% 8) eta baimendu gabeko substantziekin (% 8) lotuak.**

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehien (51 jakinarazpenetatik 42).**


Salmonella, batik bat, **lehengai** hauetan detektatu da: **koltza** (irin moduan 7 jakinarazpen, opil moduan 2 jakinarazpen, eta expeller moduan 1 jakinarazpen), **soja** (irin moduan 5 jakinarazpen, expeller moduan 1 jakinarazpen, opil moduan 1 jakinarazpen, eta pellet moduan 1 jakinarazpen), eta **ekilorea** (irin moduan 3 jakinarazpen, hazian 1 jakinarazpen, eta opil moduan 1 jakinarazpen).



**TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK ETA PENTSUAK**

Produktuen arabera, **lehengai**ei dagozkie jasotako jakinarazpenen % 74; **etxeko animalientzako pentsuei** % 13,4; **gehigarri eta aurre-nahasketei** % 4; eta **kontsumorako animalientzako pentsu konposatu eta osagarri**ei % 8,6.

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira: **koltzarekin egindako produktuak (10)**, **sojarekin egindako produktuak (9)**, **ekilore-irina (5)** eta **txakurrentzako mastekagarriak (16)**.



**Eranskina.** RASFFren bidez 2020ko 3. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	MOTA	KOP	PRODUKTUAK	KOP	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	51	Koltza-irina	1	<i>Salmonella Agona</i>
				1	<i>Salmonella (presentzia/25 g) eta Salmonella Typhimorium</i>
				2	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
				1	<i>Salmonella Mbdanka</i>
				1	<i>Salmonella Livingstone</i>
				1	<i>Salmonella Tennessee</i>
			Koltza-espellerra	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Koltza-opila	2	<i>Salmonella Agona</i>
			Soja-irina	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
				1	<i>Salmonella Livingstone</i>
				1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
				1	<i>Salmonella Agona</i>
				1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Soja organikoaren espellerra	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Soja organikoaren pelletak	1	<i>Salmonella Typhimorium</i>
			Soja organikoaren opila	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
			Ekilore-irina	1	<i>Salmonella Leeuwarden</i>
				1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
				1	<i>Salmonella Leeuwarden</i>
			Ekilore-haziak	1	<i>Salmonella Leeuwarden</i>
			Ekilore-opil organikoa	1	<i>Salmonella Oranienburg</i>
			Maskotentzako elikagai gordin izoztuak	1	<i>Salmonella Infantis</i>
			Txakurrentzako mastekagarria	1	<i>Salmonella Livingstone</i>
				6	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
				1	<i>Salmonella Newport eta Salmonella Montevideo</i>
				1	<i>Salmonella Derbi</i>
			Serum-hautsa	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Patata-pulpa	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Arkume-irina	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Oilasko-haragia	1	<i>Salmonella Infantis</i>

			Zeta-har idorrak	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
			Intsektu-irina	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Txakur eta katuentzako pentsuak	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
			Katuentzako elikagai gordinak	1	<i>Salmonella Infantis</i>
			Txahal-eztarri idorra	1	<i>Salmonella (presentzia/25 g)</i>
	Enterobakterioak	2	Arrain-irina		
		2	Txakurrentzako mastekagarria		
	Onddoak	4	Erremolatxa idorraren pulpa		
		1	Ekilore-irina		

ARRISKUA	KOP	MOTA	PRODUKTUAK	KOP
Mikotoxinak	5	B1 aflatoxina	Txorientzako kakahueteak	1
			Kakahueteak	4
PATak	4	Hausnarkarien DNAren presentzia	Arrain-irina	2
			Hegazti-irina	1
		Hezur-zatiak	Maskotentzako elikagai gordin izoztuak	1
Metal astunak	7	Beruna	Esne-txerri eta txahalentzako pentsua	1
		Kadmioa	Txakurrentzako pentsua	1
		Artsenikoa	Pentsu minerala	1
			Alga idortuak	1
			Hegaztientzako pentsua	1
		Artsenikoa, kadmioa eta beruna	Esne-txerrientzako pentsu osagarria	1
Artsenikoa eta kadmioa	Txakurrentzako pentsua	1		
Dioxinak eta PCBak	1	Dioxinak	Txakurrentzako mastekagarria	1
Baimendu gabeko substantziak	8	Pentsuentzako baimendu gabeko gehigarria, kanabidiola	Pentsua	2
		Pentsuentzako baimendu gabeko gehigarria, amoxicilina	Esne-txerrientzako pentsu osoa	1
		Pentsuentzako baimendu gabeko gehigarria, etoxikina, eta DDTren presentzia	Arrain-irina	1
		Zilpaterolaren presentzia	Azukre-kanaberaren melaza	1
		Lactobacillus plantarum, Enterococcus faecalis, Pediococcus lactis-en presentzia	Arraintzako pentsua	1
		Matrinaren presentzia	Esne-behientzako pentsu organikoa	1
		Lasalocid (HGMtik gora)	Pentsu osoak	1

<b>Fitosanitarioen hondakinak</b>	6	Matrina	Artemisa- eta alkatxofa-aterakina	1
		Klorpirifoak	Koltza-irina	1
			Hegaztientzako pentsua	1
		Haloxifopa	Linazia	1
		Bromukonazola	Garagarra	1
		Buzoprofezina, tiametoxama eta profenofoak, triazofoak eta trikiklazola	Arroz-zahia	1
<b>Beste batzuk</b>	21	D bitaminaren kopuru handia	Txakurrentzako elikagai idortuak	1
		Narasina- eta nikarbazina-kopuru handia	Indioilarrentzako aurre-nahasketak	1
		Kobre-kopuru handia	Gizentzeko oilaskoentzako pentsu osoa	1
			Oilo erruleentzako pentsu osoa	1
		Astaxantina- eta kantaxantina-kopuru handia	Arrainentzako pentsua	1
		Selenio-kopuru handia	Txakurrentzako pentsua	1
		Kobalto-kopuru handia eta behar ez besteko etiketatua	Pentsua	1
		Tartrazina-kopuru handia	Pentsua	1
		Ergota	Zekalea	2
		<i>Ambrosia spp.</i>	Artaxiki zuria	1
			Ekilore-haziak	1
		Pentsuentzat baimendu gabeko merkaturatzea	Burdin sulfatua	1
		Osasun-ziurtagiri akastuna	Hegazti basatientzako kakahuete gordina	3
		Animalien elikadurarako ez-onargarriak	Txakurrentzako mastekagarria	4
		Ekoizpen desegokia	Pentsu batzuk	1